

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteazkena, 2013ko martxoaren 27a. IX. urtea. 2.568. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Shanti Iribar *Dr Sirius Magma*, Iker Lopez *Iki Peligro* eta Iñaki Guantxe *Guantxe* taldeko kideak, Bonberenean. OLATZ ARTOLA

Shanti Iribar, Iker Lopez eta Iñaki Guantxe Lobo Electrico taldeko kideak

«Lobo Electrico taldea ez da hiltzen, ezta amaitzen ere»

Lobo Electrico tolosar taldeak, gaur, azken kontzertua eskainiko du Le Bukowskik antolatutako Ze premikin jaialdian, Donostian; hamalau urteko ibilbideari amaiera emango diote ◯6

Txotxongiloak, buztina eta pintura ardatz dituzten artelanak ikusgai

Alegiako Erretirodunen tabernan pintura, Tolosako Lanbroa tabernan buztina eta Topic Zentroan txotxongiloak daude ◯4-5



Txotxongillo taldearen lanak daude ikusgai, Topic Zentroan. A.MAZ

Kilometroetako leloa ardatz hartuta **Ahora!** bideo lehiaketa antolatu dute

Ondo pasatzea, sormenari eragitea eta gazteak mugiaraztea ditu helburu, Kilometroak 2013ko Ikasle Batzordeak antolatu duen lehiaketak ◯3

Bidaiarien Txokoan Antxon Iturrizak jardunaldiak eskainiko ditu

Mendi kronikagile donostiarrak 'Euskal Mendizaletasunaren Historia' jardunaldiak emango ditu apirilean; hiru saio izango dira, eta izen ematea zabalik dago ◯2

Seme kuttun izateari utziko dio Antonio Lizarza leitzarrak

Leitzako Udalak ohiko batzarrean hartu du 1945. urtean emandako izendapena kentzea; Lizarza Nafarroako erreketeen ordezkari eta 36ko gerraren sustatzailea izan zen ◯7

Baseri paisaien balioak eta etorkizuna aztertzeko aukera, Tolosan

Tolomendi Landa Garapen elkarteak parte hartze saioa antolatu du apirilaren 10erako; Tolosako kultur etxean izango da saioa, eta izena eman daiteke ◯7

Tolosa mendizaletasunaren plaza garrantzitsua dela dio Antxon Iturrizak. Mendi kronikagile lanetan aritu da azken 30 urteotan, eta 'Euskal Mendizaletasunaren Historia' jardunaldiak eskainiko ditu Bidaiarien Txokoan.

Mendiko pausoak mendeetan

Izteia Urkizu Tolosa

Bidaia mundu eta esparru asko hartzen ditu. Tolosatik Donostiara trenean joatea izan daiteke, norbaitentzat, bidaia. Kanariar Uharteetara joatea ere bidaiatzea da. Himalaiako tontorrik garaieneta iristeak ere, badu zer bait bidaiatik. Bidaien munduak ukitzen dituen eremu guztietako gai ei aterpe ematen dihardu, azken urtebetean, Tolosako Antxon Bandres Bidaiarien Txokoak, eta euskal mendizaletasunari begira jarriko da txokoa, apirilaren *Euskal Mendizaletasunaren Historia* jardunaldiak antolatuko dituzte.

Mendiak euskaldunei eta euskaldunek mendiari eman diotena jaso du, azken 30 urteotan, Antxon Iturriza donostiarraren lumak; mendi kronikagile gisa ezaguna da, eta *Euskal Mendizaletasunaren Historia* jardunaldietako hiru saioak gidatzearen ardura izango da bera, Bidaiarien Txokoan.

Hamar urte behar izan zituen, Iturrizak, jardunaldien izen bereko trilogia osatzeko; euskal mendizaletasunaren lekukotasunik zehatzenak bildu ditu, ordea.

Trilogia horren egitura aprobeztatuz, beraz, jardunaldia hiru saiotan banatu dute antolatzaileek: apirilaren 15ean izango da lehena, bigarrena apirilaren 22an, eta azkenik, apirilaren 29an birliduko dute egitasmoa; 19:00etatik 21:00etara izango dira saioak.

Lehen saioan, 1848tik 1936ra bitarteko kontuak izango dira hizpide, eta besteak beste, euskaldunak lehenengoz Pirinioetara nahiz Alpeetara nola iritsi ziren ezagutu ahal izango dute entzuleek: «Aristokraten garaia izan zen, hasierako hura, dirua behar baitzen mendira joateko. Gero, ordea, mendira joatea kirol ikuspegitik begiratzen hasi ziren», dio Iturrizak.

1936ko gerrak, beste hainbat esparruri bezalaxe, mendizaletasunari ere eragin zion, eta ordutik 1980ra arteko epea jorratuko dute bigarren saioan; besteak beste, Everestera iritsi ziren lehen euskaldunak hizpide izango dituzte.

Azkenik, hirugarren egunean, 1980tik gaur egunerainoko jauzi nabarmenaz ariko dira: «Lehen mendizaletasuna enbor bakarra zen, eta denek denetik egiten zuten. Orain, berriz, mila adar daude, bai mendira igotzeko, bai eskalatzeko, eskialtzeko,....».

Izen ematea zabalik

Jardunaldietan parte hartzeko izen ematea zabalik da jada. 15 euroko prezioa du, eta bazkideek 10 euro ordaindu beharko dute.

Datuak bidaiari@bidaiarien-txokoa.com helbidera bidal daitezke. Diru sarrera, berriz, Euskadiko Kutxako 3035 0028 19 028115607 kontuan egin behar da, gero ordain agiria aurkeztuz.



Hamar urte behar izan zituen Antxon Iturrizak, trilogia osatzeko. HITZA

Antxon Iturriza • Mendi kronikagilea

«Euskal Herrian asko idatzi izan dugu alpinismoaz»

I. Urkizu

Euskal Mendizaletasunaren Historia lana oinarri hartuko du Antxon Iturriza donostiarrak, jardunaldiko saioak eskaintzeko.

Zure lana burutzeko hamar urte behar izan zenituen. Nola hasi zinen?

1999an, Euskal Mendi Federazioaren 75. urteurrena bete zen. Urteurrena ospatzeko egitarauak prestatzen hasi ziren, eta besteak beste, euskal mendizaleen historia nolabait jaso behar zela erabaki zuten.

Zuk hartu zenuen, beraz, ardura hori.

Bai, eta oso gaizki atera nituen kontuak, lana askoz ere arinagoa izango zela pentsatu bainuen. Ordea, ikerketa bat abiatzean, arakatzen hasten da bat, eta zenbat eta sakonerago joan, orduan eta zulo handiagoa egiten da. Horrela, bi urte pasatakoan, amaiturik behar zuen lana, epe luzerako egitasmo bilakatu zen. Lehen liburua 2004an argitaratu zen, bigarrena 2005ean, eta azken liburua, berriz, 2007an

Uste baino lan gehiago pilatu zitzaizun, beraz.

Bai. Lehendabizi liburu bakarra argitaratzeko asmoa genuen, baina azkenean hiru izan ziren, eta hala ere, gauza asko moztu behar

izan genituen. Egia esan, niretzat, lan nekeza izan zen, baina bukatu ondoren, gustura begiratu dut atzera.

Nolakoa izan zen lekukotasunak bilatze hori?

Garairen arabera izan zen. Lehen liburua amaitu nuenean, adibidez, aipatzen diren izen guztiak artetik, bi pertsona bakarrik zeuden bizirik; gaur egun, inor ez. Adibidez, 1915ean zer gertatu zen jakiteko, ezin izan nuen inorekin hitz egin, eta egunkariak eta bestelako artxiboak izan ziren nire iturri bakarra. Jardun horretan ordu asko pasa behar dira.

Protagonistekin hitz egitean datuak ere zehatzagoak dira, ezta?

Bai. Beste liburuetan ere hemerrotek eta artxiboak bisitatu behar izan nituen, oso iturri garrantzitsua direlako. Euskal Herrian, gainera, asko idatzi izan dugu alpinismoaz. Hala ere, protagonistekin zuzenean hitz eginda beste ikuspegi bat eman diezaiokezu gauza berari. Horrela, bigarren garaiko datuak biltzeko, Andean eskalatzen edo Everestean izandako pertsonekin hitz egin nuen. Azken liburua osatzeko, berriz, mendizale gehientsuenekin hitz egin ahal izan nuen, batzuk zoritxarrez bidean geratutakoak diren arren.

Mendizaletasunaz asko idatzi dela aipatu duzu. Horretan jardun duenetako bat zu izan zara.

Bai, eta lan horretan kasualitatez hasi nintzen gainera. Gazte-gaztetatik joan izan naiz mendira, eta federazioan, lehendakari aldaketa egiteko garaia iritsi zen. Bitarte horretan, aukeraketa prozesua martxan zela, federazioan kazetari lanetan aritzen zenak, bi hilabetez bera ordezkatzeko eskatu zidan. 30 urte pasa ditut azkenean!

Zein ikus-entzule mota espero duzu Tolosako jardunaldietan?

Ez dakit. Tolosa garrantzian handiko plaza izan da mendizaletasunarentzat, oso errotuta baitago. Nik askotan esaten dut, edonori gustatzen zaiola bere arbasoen berri izatea. Beraz, mendirako zaleletasuna duenari ere interesatuko zaio mendiaren historia. Jendea gustura egotea espero dut.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

↓ Iragarki laburrak

LANA

Etxeko lanak. Etxeko lanetarako edo haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. 943696882/606 521992.

Gitarra jotzailea. Musika: Erromeria talde batek gitarra jotzailat behar du. Interesa dute-

nek, dei dezatela 658 70 11 96 telefono zenbakira.

ETXEBIZITZA

Alokairu bila. Ibarren etxea alokatu nahi nuke, hilean gehienez 400 euro ordainduz. Interesatuak, deitu 699 8213 24 telefono zenbakira.

Gazteak aktibatzea eragin nahi duen Ahora! bideo lehiaketa antolatu dute

Kilometroak 2013ko 'Ahora!' leloa gai gisa hartuta, gehienez bost minutuko edozein bideo mota egin daiteke

Mikel Iraola Tolosa

Ondo pasatzea, sormenari eragitea eta gazteak mugiaraztea. Horiexek dira Kilometroak 2013ko Ikasle Batzordeak antolatutako Ahora! bideo lehiaketaren helburu nagusiak.

Kilometroak 2013ko leloa ardatz hartuta, gehienez bost minutuko edozein bideo mota aurkezten datza txapelketak: *Harlem Shake*-ak, *flash mov*-ak, film laburrak, bideoak... Edozerk balio du. Gainera, denen eskuragarri izateko, edozein formatutan grabatzeko aukera eman dute antolatzaileek. Hau da, bideo kameraz, sateko telefonoaz edo bestelako aparailuez egin daiteke.

Ikasle Batzordea osatzen duten ia 20 pertsonak gogor aritu dira lanean azken hilabeteetan. Jatsu Ormazabal da antolatzaileetako bat eta berak adierazi duen moduan, asteburu pasa joan ziren Getariara, ideiak botatzeko asmoz. Bertan lehiaketa egitearen ideiak indarra hartu zuen: «Entrenitzeko modu ona iruditzen zitzaigun, eta horrela gazteak lokaletatik



Bideo lehiaketako kartela. HITZA

atera nahi ditugu. Hala ere, edonori zuzendutako lehiaketa da». Getarian bertan, lehiaketaren nondik-norakoak azaltzen dituen lehen bideoa grabatu zuten, eta orain, gehiagoren zain dira: «Entzun dugu batzuk grabaketetan hasi direla».

Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 10a izango da, eta on-

doren, hilabete bukaeran ospatuko den Ahora! Astean bistaratuko dituzte lan guztiak.

«Sari potoloak» banatuko dituzte: 500 euro eta 20 laguntzako egonaldia Getariako Askizu ateplean, edo 500 euro eta tablet bat irabazlearentzat, eta 250 euro bigarrenarentzat. Badute lana, beraz, gazte zein ez hain gazteek.

Korrika



Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga

Biologoa

Itzaro da, pasa da, eta iritsi da Baionara. Bi hankako bizidun mordoak, guztiak lekukoa daraman liderrari jarraituz, Euskal Herri osoan zeharreko migrazio luze eta gogor hau? Ehiza leku berriak topatzeko? Bikotekidea bilatzeko? Ez. Gure ama hizkuntza, Europako hizkuntza zaharrena omen dena, denboraren zulo beltzean ez desagertzeko. Ez dago pisu handiagoko arrazoiren beharrik!

Baina, gure hizkuntza xumea sustatzeko bi asteroko lantxoak egiten duan biologoa naiz eta ez hizkuntzalaria, beraz Korrika-n parte hartzen dudanean, euskaraz gainera, bi hankatan mugitzen diren tximino arraro ugari ikusten ditut. Eta bi hanka soilik dituzten harren, oso ongi egiten dute Korrika. Eta bai, honezkeror apur bat ezagutu nauzun irakurle fidela... gaurkoan lau hankako bizidunen mugimenduez arituko gara gure euskal ekokulturaren txoko xumean.

Korrika edo lasterka egitea oso oso garrantzitsua da bizidun batenentzat, batez ere arriskuetatik ihes egiteko. Eta janariak lasterka ihes egiten ikasi badu, janari horren ehiztariak ere lasterka hasi beharko du nahitaez, bestela gogoz hilko baita. Ez da harrizkoa beraz, bizidunek lasterketarako gerra armamentu oso bortitz bat izatea milioika urtetan zehar eta modu honetara sortu dira lau hankako lasterketan ezagutzen ditugun modu nagusiak.

Aurkezten lehenengoa, karniboro edo haragijaleen mugimendu modua da, lau behatzen gainean pausatzen dira eta bosgarrena airean geratzen da orokorrean. Hanka osoa pausatu ordez, haragijaleak behatz puntatan ibiltzen dira, modu honetara, beraien lasterketek abiadura handiak har dituzakete denbora oso laburrean eta hau gutxi balitz, oin azpian kuxin moduko egiturak dituzte, zarata gutxiago ateratzeko beraien ehiza momentuetan. Hauen korrika modua, bizkar hezurra tolestuz lortzen da, atzeko hanka eta aurrekoak elkartuz eta malguki baten moduan, atzeko hankekin gorputza aurrerantz botatzen dute, aurreko hanken gainean lur hartuz eta berriro mugimendua hasiz.

Datu bat. Ikusi izurde eta balea batek nola egiten duten igeri, ez al duite hauek ere bizkar hezurra lau hankako korrikalari baten moduan uzurtzen? Nork ukatu be-

har digu, balea, izurde eta bestelakoek ez dutenik jatorri lurterra? Ba bada jende ugari ukatzen duena! A ze tripako mina.

Bada beste korrika modu bat, oso gertukoa eta ziurrenik ez diguna behar bezalako arretarik ipini. Ikusi, behi, ardi, txerri, ahuntz eta bestelako animalia apatxduen hankak. Hauek hiru behatzen gainean pausatzen dira eta ez dituzte, haragijaleen antzeko kuxinik, hauek apatx sendo eta gogorrak dituzte, harkaitzen gainean irristatu gabe ibiltzeko. Puntu honetara iritsita ziur zuetako asko zaldiez eta antzeko pentsatzen ari zaretela, baina zalduak zerbait ezberdixeagoak dira.

Zaldi eta antzeko animaliak behatz baten gainean pausatzen dira ez hiruren gainean, behatz honen puntan apatx oso handi eta sendoa du, bertan ipintzen diogu gizakiok ferra. Ikusi denez, zaldia- ren ahaide urrunak ere, ahuntz eta ardien moduan hiru behatzen gainean ibiltzen ziren, baina bizidunen milioika urteko eraldaketa zoragarriak eramanda, gaur egungo korrika modua garatu dute. Oso modu eraginkorra da, dirudinez, eremu lauetara egokitutako korrika modua da eta ez ahuntzak ibiltzen diren eremu harkaitzuetarako.

Baina bizidun guztiak ez dira lau hankan ibiltzen; zu eta ni bi hankadunak gara, gure aurreko hankak eskuak bihurtu baitira. Hala ere, txikiak garenean, gure lau hankako ahaidearen zantzu batzuk baditugu eta ederki ibiltzen gara lau hankatan gure etxeko zoruan barrena, nonbait gure garunaren barren barrea, oraindik zakur baten tamainako lau hankako animalia haragijale eta ilelunaren presentzia badugu. Honetaz pentsatzea, edozein futbol txapelketa baino zirrarragarriagoa da!

Espero dut, ene irakurleek, beraien inguruko animalien korrika moduei bost bat minutuko arreta eskaintzea, ez dago inora joan beharrik, soilik begiak beste modu batera ireki eta kito! Udaberria datorren honetan, hasi zuen prismatikoa, gida eta lupak prestatzen, atera kalera, ireki begiak eta ikusi udaberriak eskaintzen digun bizidunehi betetako ingurunea; ez utzi txoririk begiratu gabe, ez utzi inzeskuririk aztertu gabe. Zinema eta igerilekua oso ondo dago, baina goazen gure inguru naturala ere aztertzea, daramagun martxarekin, hamar urterako dugu eskuragarri eta!

Azkenik, biologo xume honi zerbait esateko idatzi lasai bioaniztasunetik@hotmail.com helbidera. Zuen «hi, letzeaut eh?» eta «azkena idatzi deken gustau zaia!»-ek aurrera jarraitzeko laguntzen didate eta kritikek asko irakasten didate! Zuek gabe honek ez du zentzurik. Udaberri on!

Ikurrinak zintzilikatzeko deia egin dute Aberri Egunerako

M. Iraola Amasa-Villabona

Aberri Eguna begira, Espainiako bandera jartzeko «inposizioaren» aurkako eta ikurrinaren aldeko herri ekimenaren deia erantzunez, Villabonako hainbat elkarte eta eragiletako kideek euskal ikurren aldarria egitera deitu dituzte herritarrak. Azken astean, taberna eta dendetan zehar *Geurea ikurrina!* dioen eskuorriak banatzen ibili dira, beren atxikimendua eskatuz, eta gustura daude jasotako babesarekin.

Orain, igandeko Aberri Eguna- ren gertutasuna aprobetxatuz, deialdia herritar guztiei egin nahi izan diete, *Harrotasunez, Ikurrinak! Balkoietara!* lelopean, ikurrinak zintzilikatzeko eskatuz. Hala ere, ikurrinak igandetik aurrera, iraunkorki mantentzeko eskatu



Herri ekimeneko kideak, larunbateko agerraldian. HITZA

dute, «Espainiako Gobernuak beren bandera inposatzen duten birtartean, euskal ikurren defentsa eta aldarria» egingo dutela adieraziz. Bestalde, datorren igandean, hilaren 31n, Iruñean burutuko

den Aberri Egunean parte hartzea gonbidatu dituzte herritarrak. Aurrerantzzen ere, ikurrinaren defentsa egitearren ekintza gehiago antolatuko dituztela aurreratu dute ekimenekoek.

Shanti Iribar *Dr Sirius Magma*, Iker Lopez *Iki Peligro* eta Iñaki Guantxe *Guantxe*. OLATZ ARTOLA

Shanti Iribar, Iker Lopez eta Iñaki Guantxe ▸ Lobo Electrico taldeko kideak

Lobo Electrico musika talde tolosarrak bere azken kontzertua emango du gaur, Donostian; 14 urtez taula gainean aritu ostean, ziklo bati amaiera emateko erabakia hartu dute, aurrera begira «energia izanez gero» itzultzeko aukerari atek itxi gabe.

«Ezin dugu sentitzen ez dugun zerbait egiten jarraitu»

Olatz Artola Tolosa

Zikloak itxi daitezke baina proiektuak ez dira bukatzen. Berriz daitezke, berriz indartu. Lobo Electrico taldeak ziklo baten amaiera iragarri du gaur, Donostiako Ze Premikin jaialdiaren barruan emango duen kontzertuarekin. Shanti Iribar *Dr Sirius Magma* abeslariak, Iker Lopez *Iki Peligro* gitarra jotzaileak eta Iñaki Guantxe *Guantxe* bateriak duela 14 urte hasitako ibilbidearen inguruan hitz egin dute, Bonberenean, euren lehen kontzertua eman zuten tokian.

Mila modutan definitzen zaituzte, baina rock talde bezala ere.

Iñaki Guantxe: Talde izateak partaide guztien artean konexioa egotea dakar. Ez soilik gu laurain artean, baizik eta bertan dauden guztien artean. Eta bakoitzak bere zeregina dauka.

2000. urteko abenduaren 23an eman zenuten lehen kontzertua, ilargi bete zegoen gau batean.

Shanti Iribar: Ilargiak beti eragina izan du gudan, baina kasualitate hutsa izan da.

Iker Lopez: Lokaletik ateratzeko beharra genuen, gure abestiak nola entzuten ziren ikusteko. Baina, artean, ez zeuden amaituta, zirraborroak baino ez ziren.

S.I.: Zirriborro luzeak. Hasierako garaian abestiak luzeagoak izaten ziren. Asko aldatu dira ordu-tik.

Zuen terminologiaren arabera, kontzertuak 'Esperma Beltzeko gauak' bezala daude katalogatuta.

S.I.: Zeru izartsuek osotasun sententzia sortzen dute nigan. Era- man egiten naute; ez dakit nora, baina norabait. Horrelako zeru bati so egitean, arnasa hartu eta elikatzen nauden zerbait dagoela sentitzen dut. Hor du jatorria terminoak, eta energia hori kontzertuetan gurekin izatea nahi genuen.

I.G.: Finean, Lobo Electricoren kontzertu bat definitzen du.

S.I.: Bilera horietan sortzen den energia da. Zu katalizatzailea zara, zure abestiek in zoaz, baina han zerbait berezia sortzen da, beste edozein kontzertutan sortu-ko ez dena. Hor gertatzen dena bizitza bezalako da, ez da une bakar bat ere errepikatzen.

Osoak taldean bizi dira, zuek talde bat eratu al duzue 14 urte hauetan?

I.G.: Beranduago iritsi arren, hori antzeman nuen, eta hori da nire jotzeko arrazoia. Orain gu gaude hemen, gu gara taldea edo familia eta guztiak gara bertako zati.

S.I.: Familia batzen duena da Lobo Electrico. Taldean lider bat

baldin badago, hori guztiak elkar- tzen dituen energia da.

I.L.: Familia bat gara eta mundu guztiak izango da parte nahi izanez gero.

S.I.: Borondate kontua da. Batu nahi duena batuko da.

Distantzia luzeak bidaiatzen omen dituzte otsoek, eta zer esanik ez zuek. Munduan zehar ibiliak zarete.

I.L.: Esperientzia baikorra da, noski, nahi dudana hori egitea, inoiz pentsatuko ez nukeen tokietan.

S.I.: Oso interesgarria da jendearen erreakzioa ikustea distantzia kulturala daukagun lekuetan. Guztien erreakzioa antzerakoa dela ohartzen zara, izan ere, planteatzen duzuna oso oinarritzkoa da. Eta oinarritzko konexio horretan Japonian ala espetxe batean jotzea ez dela hain ezberdina ikusten duzu.

I.L.: Espetxeetan jotzea oso berezia izan da. Inguru ordenatu batean kaosa sartzen baituzte. Eta, hala ere, bat egiten duen sententzia, energia hori ere sentitzen duzu.

Mutazio hitza oso presente dago zuen hitzetan. Kontzertuetan nahiz une oro mutetzen al zarete?

S.I.: Guztiak eta guztia etengabe-ko mutazioan dago. Zerbait estanda-koa dela pentsatzea ilusio bat da. **I.G.:** Guk jendeari gurekin muta-

tzeko gonbita egiten diogu, nahi duen bezalako izateko.

S.I.: Naturak bezala funtzionatzeko, aldatzeko.

I.G.: Eta gure musikak beraiekin eramatea.

Zuen azken lana 'Artefactos magicos' da. Zein tresnaz ari zarete?

S.I.: Bere existentzia aldatzeko asmoarekin eraikitzen duzun edozein gailuz. Funtzionatzeko ener-

«Lobo Electricoren kontzertuak bizitza bezalakoak dira, ez da unerik errepikatzen»

«Esaten dena ulertu egiten duzu hizkuntza ulertu gabe, sentitu egiten baituzte»

gia eman behar diozun edozer. Disko hori bera adibidez.

I.G.: Zuretzat garrantzitsua dena beste batentzat oharkabekoa da. Zuk nahi izanez gero, guretzat CD horretako musika den bezala, magikoa izango da.

Ibilbide honetan bilakaerarik izan al duzue talde eta pertsona moduan?

I.G.: Nik ez dut eboluzionatu. **S.I.:** Hori berak dioena da, baina, beti aldatzen zara.

I.G.: Ni jada ez naiz kezkatzen. Egoera kontrolpean izan ordez, gauzak bere kabuz gertatzea gus- tatzten zait.

S.I.: kontrolpean eduki nahi izate- ak beldur zarela islatzen du.

I.G.: Egoera kontrolpean eduki nahi baduzu zailagoa da ondo ir- tetea, maila asko gainditu behar baitituzu. Bere horretan memento- toa biziz gero, pasatzen dena pa- sata ondo egongo da.

Euskal musikaren historian, plazar euskalduntzeko helburuarekin dant- zaldiak sortu ziren. Gaur egun eus- karak ba al du indarririk bertako musi- kan?

I.G.: Kontsumitzaileak hizkuntza- ren hesia gainditu du, eta esaten den horri arreta jarri dio. Euskal- dun batek euskaraz abestu behar- ko luke, bere hizkuntzan hobeto adieraziko duelako.

S.I.: Hizkuntza hobeto adierazte- ko giltza da.

I.L.: Hizkuntzak instrumentua beh- ar du izan. Baina esaten den hor- rek ere lotura eduki behar du kom- posizioarekin.

I.G.: Elkarrekin badoaz hizkuntza ulertu gabe esaten dena ulertzen duzu. Sentitu egiten duzu.

S.I.: Bestalde, aukera ere handitu egin da. Lehen estilo jakin batean soilik egiten zen euskaraz.

Dantzaldietatik rockera. Rockatik punk rockera. Honek gaztetxeen mugimendua ekarri zuen.

I.G.: Guk oraindik «gazte» bizitza bizi dugu. Adinak berdin dio, gaz- tetxeen parte gara. Esker onak besterik ez daukagu gaztetxeen- zat. Tamalez, gaztetxera joatear- en eta bizimodu hau ematearen usadioa galtzen ari da lokalak in- darra hartzen ari diren bitartean.

S.I.: Egungo gazteek gaztetxeak beti eduki izanak ez du esan nahi beti izango dituztela. Baina gazte- txeeak egoteko beharra sentitu beh- ar duzu, eta behar hori edukita, gaztetxeetara joan, gaztetxeak sortu.

Evaristok esan zuen punkak bi lege dituela: «Oinarri zerbait esatea da eta kalean bezala hitz egitea». Eta bigarrena: «Ez dago araurik eta jar- zen dituen joan dadila pikutara».

Zuek lege horiek jarraitu dituzte?

I.L.: Batez ere bigarrena.

I.G.: Gure arau bakarra albokoa errespetatzea da.

I.L.: Noski, arauak bete behar ba- dituzu ez baitauka graziarik.

S.I.: Puntean libreza zara. Legeak «antipunk» dira.

Gaur bertan 2000. urtean hasitako bideari amaiera emango diozue Le Bukowskik antolatutako Ze Premi- kin jaialdian. Zuen azken agurra izango al da?

I.G.: Ziklo bat amaitzen dugu. Memento ezin dugu jarraitu senti- tzen ez dugun zerbait egiten. Behar bada, guk eta gukustera etor- tzen direnek nahi izanez gero, itzuliko gara. Gogoia edukitzeko gogoz gaude, energia hori eduki- tzeko gogotsu gaude. Ez dugu inor engainatu nahi, baina, Lobo Electrico ez da hiltzen ezta amaiz- ten ere.



Baserri paisaien balioak eta euren etorkizuna aztertuko dituzte. I. I.

Baserri paisaien balioak agerian jartzeko ekimena

Tolomendik parte hartze saio irekia antolatu du apirilaren 10erako, Tolosako kultur etxean

Iñigo Terradillos

Tolomendi Tolosaldeako Landa Garapen Elkarte, Gipuzkoa eta Bizkaiko beste zortzi Landa Garapen Elkartekin batera landa-paisaia atlantikoan balioa agerian jartzeko ekimenean ari da parte hartzen. Eskualdeko, baserri paisaiek dituzten elementu bereizgarriak edo balioak aztertze-ko eta horien erronkak identifikatzeko parte hartze saio irekiak burutu zituzten ekainean, eta orain bigarren saioa prestatu dute. Apirilaren 10ean izango da, Tolosako kultur etxean, 19:00etan, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera. Horretarako, paisaia.atl@paisaia.com helbidera idatzi edo 686 738152 edo 943335048 zenbakietara hots egin beharko da.

Antolatzaileek azaldu dutenez, «oso nabarmena da baserri pai-

saiek euskal kulturaren testuinguruan esanahi berezia dutela, bertako nortasuna, historia eta kulturaren oinarriko elementu direlako». Hala, hurrengo belaunaldiei eskualdeko landa paisaiei dagokienez utzi nahi zaien herentzia zein izango den denen artean erabakitzea, eta egun lur horietan bizimodua irabazten dutenek bizi baldintza duinak izan ditzaten moduak bilatzea du helburu ekimenak. Bide horretan, eskualdeko baserri paisaierako ekin-tza zehatzak mahai gainean jartzea bilatuko du proiektuaren hurrengo faseak.

Tolosako saioaren ondoren, proposatzen diren ekimen zehaztapenean sakonduko dute eta horiek eskualdeko erakundeei eta eragile sozial eta ekonomikoiei aurkeztuko zaizkie, hurrengo urteetan ekimenak gauzatzeko asmoz. Era berean, lehen sektoreak ongizateari egiten dizkion ekarpenak azpimarratzea, horien inguruan gizartea sentiberatzea eta eskualdeko baserriarrei haien produktuei beste balio erantsi bat gehitzeko aukera aurkezteko proiektuaren helburu dira ere azaldu dute.

Sanjoanak iragartzeko kartela aukeratzeko lehiaketa abian da

Maitzaren 17a baino lehen aurkeztu beharko dira lanak; kartel irabazleak 500 euroko saria eskuratuko du

I. Terradillos Tolosa

Tolosako Udalak San Joan jaiek iragartzeko dituen kartela egiteko lehiaketa antolatu du estreina-koz. Irekia da, edonork parte hartu ahaliko du, eta epaimahaia eta herritarren artean aukeratzeko dute lanak 500 euroko saria jasoko du.

Parte hartzaileek bi baldintza bete beharko dituzte euren kartelekin, ideia nahiz edukiari dagokionean, originala izatea eta «Sanjoanak 2013 / Tolosa, ekainak 21-25» jartzea. Maitzaren 17a baino lehen aurkeztu beharko dira lanak kultur etxean. Kartela-

ren atzealdean egilearen adina eta izenburua jarri beharko dira, eta lan bakoitzarekin batera gutunazal itxi bat entregatu beharko da, egilearen datuekin.

Aurkezten diren kartel guztien artean epaimahai batek lehendabiziko galbahea pasako du. Aukeraturako lan horiek ikusgai jarriko dituzte, eta ondoren, herritarrek euren gustukoena bozkatu ahaliko dute. Epaimahaia festa batzordeak izendatuko du, eta emakumeen nahiz gizonen ordezkari-tza parekatua izango du. Era berean, gaiaren trataera sexistarik ez dela onartuko adierazi dute udaletik.

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek Tolosako kultur etxean edota www.tlsbat.net webgunean topatuko dituzte oinarriak. Informazio gehiago nahi duenak edota edozein zalantza argitzeko 943 67 03 88 telefono zenbakira deitu ahaliko da.

Seme kuttun izateari utzi dio Antonio Lizarzak

Nafarroako erreketen ordezkari eta 36ko gerraren sustatzaile izan zen; leitzar seme kuttun izendatu zuten 1945ean

I. Terradillos Leitza

Antonio Lizarzak herriko seme kuttun izateari utziko dio, Leitzako Udalak izendapen hori bertan behera uzteko erabakia hartu baitu ohiko batzarrean.

1891. urtean Leitza jaio zen karlista nafarra izan zen. II. Errepublikan sortu zenetik hasi ziren indar eskuindarrak altxamen-
dua prestatzen, bereziki Nafarroa

Garaiko erreketek. Hain zuzen ere, 1936ko gerrako prestaketetan eginiko lanengatik egin zen ezagun eta Nafarroako erreketen ordezkari izendatu zuten 1934. urtean, Antonio Lizarza. 1945. urtean Leitzako seme kuttun izendapena jaso zuen. 1953. urtean, *Memorias de la conspiracion: 1931-1936* idatzi zuen, 1936ko gerraren prestaketan izan zuen papera kontatuz.

Bada, Leitzako Udalak izendapen hori bertan behera utzi du, eta Nafarroako Gobernuari ere eskaera egin dio: «sinbolo eta ikurraren legea osotasunean bete dezan eskatzen diogu, eta ez partzialki edo alde bakarrekoekin soilik».

→ Laburrak

SAM-eko kaleratzeen aurka, elkarretaratzea

TOLOSA ▶ SAM lantegiko langileen batzordeak elkarretaratze-
ra deitu du gaurko, Tolosako Trianguloa plazan, 19:00etan. Kaleratzeen aurkako protesta horretara batzera deitu dituzte herritar guztiak.

Bazkari errepublikarra egingo dute apirilaren 14an

TOLOSA ▶ Tolosako Foro Errepublikarrak herri bazkaria antolatu du apirilaren 14rako. Bazkaria Zerkausian izango da, 14:15ean hasita. Interesatuek izena eman dezakete 22 euro sartuta Kutxako 2095 5081 93 1074768150 zenbakian, izena eta abizena adierazita. Tolosako oro gonbidatu dute «adiskidetasun errepublikarreko ekimen» honetan parte hartzera.

Aberri Eguna Iruñera joateko deia egin dute

ADUNA ▶ Adunako hautetsiek bat egin dute igandean, hilaren 31n, Aberri Eguna dela eta, Independentista sareak Iruñean 12:00tan, antolatutako manifestaziorako deialdiarekin. Autobusez joateko aukera izango da, Tolosako Santa Klarako aparkalekutik, 10:30etan. Horretarako, aurrez izena eman behar da. Era berean, herritar guztiei dei egiten diete Aberri Egunean ikurrinak zintzilikatzera etxeko balkoietan.

Kantu jira egingo dute larunbat eguerdian

TOLOSA ▶ Udaberriko lehenbiziko kantu jira larunbatean, hilaren 30ean egingo dute Tolosa Kantariko kideek. Ohi bezala, 12:00etan elkartuko dira Tontokalen, eta 14:00ak aldera arte, kantuan ariko dira Tolosako Alde Zaharrean. Bertarako entseguak, gaur egingo dute, 20:00etan, Tolosako Musika Eskolan.

● Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

-Eskaronak-

**Juan Arin
Dorransoro**

Familia osoaren partetik, eskerrik asko dohiminak eman eta egun hauetan babesa eman diguzuen guztiak. Mila esker.

ATALPEN, 2013ko martxoaren 27an



16°
10°

GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	16°
HOTZENA	13°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaurdi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alizo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Musika Hamabostaldiaren kartela Koldobika Jauregi artista alkizarrak egin du

Abuztuaren 1etik 31era izango da Donostiako Musika Hamabostaldia; pozik hartu du lan hau egiteko berria artistak

Eneritz Maiz Alkiza

Koldobika Jauregi artista alkizarrak egin du aurtengo Musika Hamabostaldiaren kartela. Iazko abendu aldera egin zioten gonbidapena, eta pozik jaso zuen kartela egiteko agindua. Egoera dagoen moduan, «arrarotzat» hartu du honelako erakunde batek kartela egiteko eskatu izana, baina berak krisiari ez dio garrantzirik eman nahi izan. Abuztuaren 1etik 31ra izango da 74. Donostiako Musika Hamabostaldia.

Gaia librea izan du, eta horrek askatasuna eman dio kartela egiteko orduan. Bere esanetan, kartela ikustearekin nabaria da Donostiaz ari dela: «Kolare urdina eta txuria nagusi dira, baina kasualitatea besterik ez da izan. Kolore horiek asko erabiltzen ditut». Donostiarako a propos ari zela iruditzen arren, horrela uztea erabaki zuen artistak beste gauzak batzuk bilatzen aritu bazen ere. «Azken finean zeru bat da, eta horregatik du kolore urdina. Eta izar batzuk dauka», azaldu du.

Kursaaleko entzuleku barruan egon denetan, askotan pentsatu izan du «zein polita izango litzatekeen, kontzertua entzuteko bitartean horretan, harrizko frontea de-



Txuria eta urdina dira kartelaren kolore nagusiak. HITZA

sagerrarazi eta eraikina ingurutzan duen itsasoa eta zerua ikusi ahal izatea». Beheko aldean, berriaz, «handitasunaren kontra bi harri koxkor irudikatu ditut, paisaia huts edo desertu batean. Hau da, kartela paisaia bat da. Goiko partean zerua eta behean lurra», nabarmendu du.

Irakurketa bat baino gehiago izan ditzakeela kartelak adierazi

du artistak: «Kursaal bera, harkaitzak, bikote bat edo haurrek jolasean izan daitezke». Jauregik nabarmendu du sortutako kartela «irekia» dela, eta «amets bat».

Kultura dagoen egoeran egonda, okerrera doala aurreikusitako alkizarrak, eta artista gazteen egoera «kezagarritzat» jotzen du. «Dirua azpiegitura handietan gastatzen da», gehitu du.

Agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● **agurrak**

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

■ **Tolosa.** Tolosako Foro Errepublikarrak herri bazkaria antolatuta du apirilaren 14rako. Bazkaria 14:15ean Zerkausian izango da. Interesatuek izena eman dezaketete 22 euro Kutzako 2095 5081 931074768150 kontu korronte zenbakian sartuta. Izena eta abizena zehaztu beharko dira. Entsalada errusiarra, krabarroka-budina, txekor masailak saltsan eta arrautzesnea izango da. Ogi, edatekoa, kafea eta kopa barne.

■ **Tolosa.** Iruñean egingo den Aberri Eguna joateko autobusa antolatu da Tolosatik. Autobusa 10:30ean abiatuko da Santa Klaratik. Gaur da izena emateko azken eguna, eta Raku tabernan eman behar da.

■ **Tolosa.** Tolosa Kantariko entsegu izango da gaur, Tolosako Musika eskolan, 20:00etan, .

■ **Tolosa.** SAM enpresako langile batzordeak deituta, gaur, elkarretaratzea egingo dute Kale-ratzerik ez! lelopean, 19:00etan. Trianguloa plazan izango da.

■ **Tolosa.** Tolosako Udalak, sanjoan iragarriko dituen kartela egiteko lehiaketa antolatu du. Maiatzaren 17a da lanak aurkez-

teko azken eguna. Kartelean, *Sanjoanak 2013 / Tolosa, ekainak 21-25* agertu beharko da.

IKASTAROKAK

■ **Tolosa.** Emakume-Lidergoari buruzko Jardunaldia: Emakumeen talentua kudeatzeko gaioak izango da apirilaren 14ean. Bizitza pertsonal, sozial zein profesionalen, jokabide estrategikoaren baliabideak aplikatuz, jauzi kualitatibo eman nahi duten emakumei zuzendua da, eta gazteleraz izango da. Izena emateko epea, gaur bukatuko da, eta 20 euro ordaindu beharko da. Bost orduko saioa izango da.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa: Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28. Gauekoa: Etxebeste, J.M. Gernikako Arbolaren lorategiak, 3. Telefonoa: 943 65 10 40.
■ **Leitza.** Campos M.Z. Elbarren, 52. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Egin HITZAren HARPIDEDUN
otsailaren 1etik martxoaren 31ra arte, ETA JASO

EKAIN sagardoa
6 botilako kaxa bana

Harpidedun egiten diren guztien artean

Orduñako Aisia hotelean, bi pertsonarentzako asteburu baterako egonaldia **ZOKATUKO DUGU**

Harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info